IRAGARKIA

SB.03 SANTA BARBARA EREMUKO A.20 LURZATIKO ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 19 ETXEBIZITZA ETA HORIEN ERANSKINAK.

BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENDUNEN ZERRENDA ETA ITXAROTE-ZERRENDA.

Zozketa egin delarik, alkateak atzoko egunez emandako ebazpen bidez Hernaniko SB.03 SANTA BARBARA eremuko A.20 lurzatian erregimen orokorreko babes ofizialeko 19 etxebizitzen eta horien eranskinen **behin-behineko esleipendunen zerrenda eta itxarote-zerrenda** argitaratzeko eta interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko hamar egun balioduneko epealdia irekitzeko erabakia hartu du.

Hau honela, aipatutako zerrenda ikusgai jarri da eta interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hamar egun balioduneko epean.

Zerrenda hori (I Eranskina), ikusgai jarriko da Hernaniko Udaleko iragarki taulan, Udalaren webgunean (www.hernani.eus) eta CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.L.ren webgunean (www.sukia.com) 10 egun balioduneko epe batez.

Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko da Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ), edo CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.L.ren bulegoan, Donostian (Lugaritz Pasealekua 21, Sukia Eraikina).

Oinarrien 10. atalean ezarritakoari jarraiki, behin-behineko esleipendun izan direnak behin betiko bihurtuko dira, horien datu pertsonalak egiazkoak direla, aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren. Horrela ez bada, hau da, egiaztatzen bada esleipendun izan denak ez dituela betetzen oinarrietan eta gai honetan indarrean dagoen araudian eskatutako betebeharrak eta baldintzak, pertsona edo bizikidetza-unitate horrek plaza bat hutsik utziko du, eta itxarote zerrendako hurrenkerari jarraiki beteko da.

Hernanin, 2023ko maiatzaren 26ean

Patxi Jagoba Lapatza Gortazar Bengoa
Udal idazkaria

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe5df1b71-698c-4da2-bb1b-3a34c4f75f03**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010***